



# naturaldía

TOLOSA 09 NATUR JARDUNALDIAK

TOLOSAKO UDALA

Babesle nagusia: **GIPUZKOA** zurekin, aurrera. GARAPEN IRAUNKORREKO DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO SOSTENIBLE

## Naturari Buruz

Gizakia bere inguruaren osagaia denez, beti eman dizkio hamaika buelta beste osagai eta elementu horiek aurkitu eta errepresentatzeari.

Tales greziararentzat denen oinarria ura zen, Anaximenesentzat, airea, Pitagorasentzat, zenbakiak, Herakletoentzat sua zen ereduia, Empedoclesek denak bildu zituen lau elementuetan: ura, airea, sua eta lurra..... hau guztia eta beste hainbat ideia iritsi zaizkigu gaur egunera.

Gaur egungo gizakiok naturako elementu horiek guztiak ezagutu, neurtu, errepresentatu, imitatu eta gure Kulturaren parte ditugu.

Beraz, eguneroko lantresna, jokogai, eztabaidagai, babesgai, aztergai, lanbide, haserregai, borrokagai, ipuingai, artagai..... mila modutako -gai bihurtu ditugu, xume eta arrunt eraldatu ditugu. Baina ez dezagun ahaztu gurekin batera zerbaiteen osagai direla, hoietako bat gutxituko balitz desoreka sortua dugula, Inguruarena eta atzetik Gizakiarena.

Aintzinako filosofoek zioten bezala BIZITZA honetako edozein aldaketa onuragari eragiteko bi indarren menpe gaude: erakarri – alderatu, maitasuna – gorrotoa, armonia – armonia eza.

Jarraitu dezagun bi indar ezberdinen arteko oreka bilatuz eta azken hau baliozgarria izan dadila gure bizitzaz gozatu ahal izateko.

Jokin Bildarratz  
Tolosako Alkatea

Apirilaren 17a, ostirala  
Tolosa

Artea KALEAN.

“Artea da pentsamendu bat islatzen duen filosofia.”  
Antoni Tapies.

Kultura etxearen fatxada izango dute topagune Mariano Arsuaga, Idoia Elosegi, Iñaki Epelde, Miren Gonzalez, Nisa Goiburu, Koldobika Jauregi, Maria Cueto, Sükrü Karakus eta Jose Luis Longaron artistek. Euren sormenezko ikuspegiaren bidez, naturaKo eta ingurumeneko gaiekin duten harremana eta ardura erakusten digute.

Apirilaren 17a, ostirala  
Aranburu jauregia. Maiatzaren 17 arte zabalik.

AguaTinta.



Urari buruzko umore grafikoko erakusketa. Andrés Rábago El Rotoda egilea. Aguatintaerakusketako irudiek zuzenean kolpatzen dituzte gure kontzientziak. Umore adimentsuaren bidez, topiko zabalduenetatik eta zuzentasun politikotik urrun, biñetek ikusleari agertzen diote zeinen ilogikoa den natura eraldatzeko erabiltzen dugun irizpidea.

## Tolosa - HITZALDIEN EGITARAUA

Apirilaren 20a, astelehena  
Tolosako Kultura Etxea. 20:00

Hedabideen eragina eta erantzukizuna, ingurumen gaiei zabalkunde ematean.

«...kazetari bat militante ekologista izan daiteke guztian, bere lanbideko zereginak egiten dituenean izan ezik. Aldi horretan, interes ekologistak aintzat har ditzake eta aintzat hartu behar ditu; baina, batez ere, gogoan izan behar du bere mezuen hartzailerek eskubide dutela informazio egiazkoa, egiaztatua, librea eta plurala jasotzea.»  
José María Montero Sandoval. Las fuentes de la noticia ambiental.

Azkenaldian, nabarmen aldatzen ari zaigu ingurumeneko informazioaren komunikazioa. Estatu Batuetako lehendakariorde ohi Al Gore mundu osoan ematen ari den hitzaldiak, munduko goi bilerak, nazioarteko eta nazio bakoitzeko biltzarrak, eta ingurumeneko albisteen ugaritzeak (telebista kateetako albistegieta, tokian tokiko prentsan, irati batzuetan eta autonomia erkidegoetako kanaletan) ingurumenari buruzko interesa erakusten dute, orain-berriki halakorik ez zen bazterretan. Baina nahikoa al da hori? Ala ingurumeneko informazioak bigarren mailakoa izaten jarraituko du, nahiz eta ingurumeneko arazok behartuko gaituzten oraingo garapen sistema geldiaraztera eta politika sostengagarriagoak bilatzera, planetak iraungo badu?

**Hizlariak:** Xavier Pastor: Oceana erakundeko Europako zuzendari exekutiboa. Gustavo Jerez: Servimedia agentziako kazetaria eta Apia elkarteko (ingurumen informazioko kazetarien elkartea) lehendakariordea. **Joaquín Nieto:** Sustainlabour garapen sostengagarriarako nazioarteko lan fundazioko ohorezko lehendakaria. **Aurkezlea:** Alberto Gorritiberea. Herri Irratia - Loyola Media.

Apirilaren 21a, asteartea  
Tolosako Kultura Etxea. 20:00

Ingurumenaren historia, zatitze baten historia. Ezkortasun baikorra.

«...problema bateko elementu guztiak puzzle bateko piezak bezala antolatzen direla diruditen arren, gogoan izan behar dugu litekeen hori ez dela beti egia izaten, eta egia ez dela beti litekeena izaten.»  
Sigmund Freud. Moises eta monoteismoa.

Ingurumena, natura bezalaxe, kulturazko kontzeptua da. Hots, gizakiaren existentziaren produktu dira. Horrek ez du esan nahi giza espeziea gabe ez litzatekeela naturarik eta ekosistemarik izango (landare eta animalia bizia barne). Halakorik izango litzateke, bai, jakina. Izan ziren iraganean, eta izango dira etorkizunean, giza espeziea Lur planetan bizi nahiz ez bizi; baita Unibertsotik betiko desagertzen bada ere. Hauxe besterik ez da: gizakiok gabe, gure galaxian eta ingurukoetan bizi adimentsurik izan gabe, natura eta ingurumena kontzeptuek ez luketela inolako zentzurik.

**Hizlaria:** Xabier Garmendia. Industria ingeniaria, aholkularitza enpresa bateko bazkide zuzendaria, Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko sailburuordea (1991tik 1995era). **Aurkezlea:** Javier Ansorena. Ingurumen Zerbitzuko burua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Apirilaren 22a, asteazkena  
Tolosako Kultura Etxea. 20:00

Femeninoaren udaberrian.

“Norberak ez du hautatzen nola hilko den. Ez eta noiz ere. Norberak, hau baizik ez du erabakitzen: nola biziko den. Orain.”  
Joan Baez

Gizadiak, bere betetasun eta batasun prozesuan, femeninoa integratzen hasi da eguneroko zereginetan. Lurra, bere zikloekin, bere erritmoekin, sakonetik datorren jakituria horrekin, elikagaiak, energia, indarra eta sormena ematen dizkigun iturri agortezin horrekin, giza arrazari helarazten zaio, femeninoaren energia eta nolakotasunak direla bide.

**Hizlaria:** Mabel Cañada. Lakabeko komunitatearen sortzaileetarikoa. Nafarroa. **Aurkezlea:** Itziar Eizagirre. Ingurumen aholkularitzan espezializatutako abokatua.

Laguntzaileak: Tolosako Elkarte Herrikoiak

Apirilaren 23a, osteguna  
Leidor zinema: 19:30ean eta 10:15ean.

Proiektzioa: Munduaren azkeneko elkartzak.

“Zientzia ez da gai naturako azken misterioak ebazteko. Izan ere, azken analisisan, gu geu naturaren parte gara, ebatzi nahi dugun misterioaren parte gara.”  
Max Plank. Fisikaria.

Werner Herzogek naturari buruz egin duen azken gogoetak, suzko, izotzezko eta bakardade sinestezinezko lur hura esploratzen du. Abenturazale horrek bidaia egin du Antartikako McMurdo estaziora, Zientziaren Estatubatuar Fundazioaren egoitza nagusira. Bada gizarte ezkutu bat, munduaren azkenean. Mila gizon-emakume elkarrekin bizi dira Antartikan, euren biziak eta osasuna arriskatuz, puntako zientziaren bila. Herzog berriz ere murgildu da dokumentalaren alorrean, zuzendari eta narratzaile lanak eginez, Antartikako paisaia lazarrietan barneratzeko aukera eman dion pieza honetan.

**Hizlaria:** Jerónimo López. Geologia Zientzietako doktorea eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakaslea. **Aurkezlea:** Josu Iztueta. Bidaia-ria.

Apirilaren 24a, ostirala  
Tolosako Kultura Etxea. 20:00

Adimen ekologikoa.

Adimena, izaera emozionalaren, ekonomikoaren eta etikoaren artean nabigatzen.

Globalizazioa nortasunaren irrika obsesiboa eragiten ari da, eta horrek liskar ugari eragingo du. Gure buruak mundializatzen dira, baina gure bihotzak bertakotzen.

**Hizlaria:** José Antonio Marina: Irakaslea eta filosofoa. **Aurkezlea:** Jonan Fernandez. Baketik-eko zuzendaria.

Apirilaren 27a, astelehena  
Leidor zinema. Ikuslearen eguna. 20:30ean

AtanarJuat: La leyenda del hombre veloz.

Mundu ezezagun batera eginiko bidaia aparta. Milaka urtean, ezin konta ahala izan dira euren kultura eta ohiko jakituria belaez belaeu irauarazi duten inuitak. Horretarako, ahoz kontatutako ipuinak erabili dituzte, orainsu arte ez baitute idatzirik izan. Kanadako eremu artiko zabalean, inuit herriak makina bat belaeunalditan bizi izan da kondaira batekin. Eta, orain, kondaira hura berpiztu da. Atanarjuat filma inuktitut hizkuntzan egin da, eskimalen hizkuntzan. Inuitak dira aktore guztiak, eta muturreko baldintzetan lan egin dute. Urrezko Kameraren saria jaso zuen.

Babesle nagusia:



## PROGRAMA - Errenteria

Maiatzaren 7a, osteguna  
Reina aretoan. 19:00etan.



Oarsoaldea: itsasbazterreko bidegurutze bat.

**Hizlaria:** Raúl Castro. AZTI – Tecnalia. Itsas Ikerketa Saila. **Aurkezlea:** Javier Belza. Ekonomia-ria.

## PROGRAMA - Zarautz

Maiatzaren 14a, osteguna  
Udaletxeko batzar aretoan. 19:00etan.



Zarautz: Gipuzkoako itsasbazterra kudeatzeko talaia.

**Hizlaria:** Raúl Castro. AZTI – Tecnalia. Itsas Ikerketa Saila. **Aurkezlea:** Aitor Lekuona. Biologoa-urpekaria.

## Chillida Lekuko - PROGRAMA - Ekainaren 13a, larunbata - 19:30ean

# Zabalaga Baserria - Chillida Leku Museoa

**Hizlaria:** Luis Rojas Marcos

Rojas Marcos, gaur egun, Psikiatriako irakaslea da New Yorkeko Unibertsitatean, eta hiri hartako Medikuntza Akademiako kidea, Psikiatriako Estatubatuar Elkarte (distinguished life fellow), Osasun Publikoko Estatubatuar Elkarte (distinguished life fellow), eta Medikuntza Aringarriko Estatubatuar Akademiako kidea.

1995etik 2002ko otsail arte, hiri hartako Osasuneko eta Ospitale Publikoetako lehendakari exekutiboa izan zen.

Artikulu ugari argitaratu ditu Estatu Batuetako zientzia aldizkarietan. Iritzi artikulu franko eta hainbat artikulu idatzi ditu; besteak beste, “La ciudad y sus desafíos”, “La pareja rota”, “Las semillas de la violencia” (Espasa Ensayo 1995 sariaren irabazle), “Nuestra felicidad”, “Más allá del 11 de septiembre”, “La fuerza del optimismo”, “La autoestima” eta “Convivir”.

Babesle nagusia: **GIPUZKOA** zurekin, aurrera. GARAPEN IRAUNKORREKO DEPARTAMENTUA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO SOSTENIBLE

Esker ona zor diogu: [www.museochillidaleku.com](http://www.museochillidaleku.com)